

Poesia irakurketa izango da ostiralean Arrasaten lau olerkariren eskutik

**Gerardo Markuleta , Angel Erro , Eli Tolaretxipi eta Karmelo C.
Iribarrenek parte hartuko dute ekitaldian**

Arrasate

Arrasateko abenduko kultura egitarauak poesia irakurketa gerturatuko du ostiralean Kultureteko areto nagusira. Rikardo Arregi gasteiztarraren gidaritzapean, Angel Erro, Gerardo Markuleta, Eli Tolaretxipi eta Karmelo C. Iribarren igoko dira taula gainera.

Udal liburutegiaren arduradunek prestatu dute eskarmentu handiko lau olerkari handi hauen emanaldia, 19.00etan hasita.

'Elurra' Bestalde, eszenatoki berean, bihar iazko Literatura Nobel Saria irabazi zuen Orhan Pamuk turkiarraren Elurra eleberriaren euskarazko bertsioaren aurkezpena egingo dute, 18.30ean. Jokin Zaitegi saria irabazi zuten Monika Etxebarria eta Fernando Rey izan dira Elkarrek plazaratu duen liburuaren itzultzaileak. Turkian bizi diren hainbat errealitate islatu ditu Pamukek 564 orrialdeko obra politikoan: Ekialdea eta Mendebaldearen arteko talkak, beloaren erabilera, Jainkoa, existentzialismoa....>a.d.